


# Haur eleaniztunak hazten



Buruntzaldea  
euskaraz

<https://euskara.buruntzaldea.eus>

## Kide berri bat iritsi da familia. ZORIONAK!

Liburuxka honetan haurrarekin partekatze jolas, abesti eta esaera zahar batzuk eskaintzen dizkizuegu.

Eduki horiez gain, sarean beste zenbait eduki dituzue eta QR kodeen bidez erraz topa daitezke. Zuen gustukoa izatea espero dugu.

BURUNTZALDEKO EUSKARA ZERBITZUAK

EU




## Ha llegado un nuevo integrante a la familia. ¡ENHORABUENA!

En esta publicación os ofrecemos algunos juegos, canciones y refranes para compartir con el bebé.

Además, en internet tenéis más contenidos a los que podéis acceder fácilmente a través de los códigos QR. Esperamos que sea de vuestro agrado.

SERVICIOS DE EUSKERA DE BURUNTZALDEA

ES





## Hizkuntzak ikasten laguntzea familien ardura ere bada

Gaur egun, gizarte eleanitz batean bizi gara eta gure seme-alabak eleaniztunak izango dira. Edozein egoera eta harremanetan bi hizkuntza ofizialetan eroso komunikatzeko gaitasuna eskuratzea onuragarria izango da beraientzat bizitzako hainbat arlotan: gizartean, lanean, kulturean...


Hurrek eskolan euskaraz ikasiko badute ere, familiek ere haurren bidelagun izan behar dute hizkuntzak eurenganatzeko prozesuan. Beraz, eskaini seme-alabei hizkuntzak ondo eskuratzeko baldintza egokiak.



## Ayudar a aprender idiomas también es responsabilidad de las familias

Hoy vivimos en una sociedad plurilingüe y nuestras hijas e hijos serán bilingües, incluso políglotas. Adquirir la capacidad de comunicarse cómodamente en las dos lenguas oficiales en cualquier situación y relación les beneficiará en diferentes ámbitos de la vida: social, laboral, cultural...

Aunque las niñas y niños aprenderán euskera en la escuela, las familias también deben ser acompañantes de las niñas y niños en la adquisición de las lenguas, ofreciéndoles las condiciones adecuadas para ello.



# GURASO euskaldunak bazarete

euskalduna  
bazara

- ★ Hizkuntza ikasteko modurik naturalena etxean ikastea da, bai eta modurik eraginkorrena ere. Familiako kideek beren artean eta gainerako helduekin euskaraz egiten badute, haurra txiki-txikitatik ohartuko da euskara tresna baliagarria dela eguneroko bizitzarako. Beraz, egin euskaraz zuen artean, eta nola ez, seme-alabei ere euskaraz egin beti!
- ★ Hasiera batean familia da umearen munduko erdigunea, baina denborak aurrera egin ahala, beste eragile batzuk agertuko dira (zaintzaileak, haur eskolak, lagunak, aisialdia...). Saiatu beste arlo horietan guztietan ere euskarari bere lekua ematen: zaintzaile euskalduna aukeratuz, aisialdi euskaldunaren alde eginez...






- ★ Garrantzitsua da haurrak jolasteko eta ikasteko erabiliko dituen ipuin, joko, musika, telebista eta abarretan ere euskarak presentzia izatea. Izan ere, hala, haurrari euskaraz egiteko ohitura hartzeko aukera gehiago eskainiko dizkiozue.
- ★ Kalean, egin Euskaraldiaren ariketa urte osoan eta izan Ahobizi! Lehen hitza euskaraz egin ezezagunekin, eta zuen gertukoekin ere bai. Era berean, euskaraz egizue euskaraz ulertzen duten gainerako gurasoekin, nahiz eta oraindik batzuek euskaraz egiteko zailtasuna izan. Hala, haiei ere euskara ikasten lagunduko diezue, eta, era berean, haurrak ikusiko du euskara ez dela soilik etxeko eta eskolako hizkuntza.

# BIKOTE mistoak

zuetako batek  
euskara  
baldin badaki  
eta besteak ez

- ★ Ama-hizkuntza eskuratzea funtsezkoa da eleaniztasunerako. Horregatik, komeni da gurasoetako bakoitzak haurrari dakien hizkuntzan egitea, modu horretan haurra txiki-txikitatik izango baita elebiduna. Irizpide orokor gisa, guraso euskaldunak umearekin euskaraz egitea garrantzitsua da, hizkuntza transmititzeko biderik naturalena, errazena, merkeena eta eraginkorrena delako. Beraz, euskaraz dakien gurasoak etxean euskaraz ulertzen duten kideekin eta seme-alabekin euskaraz egitea izango litzateke onena. Garrantzitsua da, era berean, euskaraz ez dakien gurasoak hizkuntzarekiko jarrera ona eta interesa agertzea.
- ★ Hasiera batean familia da umearen munduko erdigunea, baina denborak aurrera egin ahala, beste eragile batzuk agertuko dira (zaintzaileak, haur eskolak, lagunak, aisialdia...). Saiatu beste arlo horietan guztietan ere euskarari bere lekua ematen: zaintzaile euskalduna aukeratuz, aisialdi euskaldunaren alde eginez...



- ★ Garrantzitsua da haurrak jolasteko eta ikasteko erabiliko dituen ipuin, joko, musika, telebista eta abarretan ere euskarak presentzia izatea. Izan ere, hala, haurrari euskaraz egiteko ohitura hartzeko bide gehiago eskainiko dizkiozue.
- ★ Zuen inguruan euskal hiztunak badituzue, eskatu haurrari euskaraz egiteko, erreferente gehiago izan ditzan.
- ★ Kanean, egin Euskaraldiaren ariketa urte osoan eta izan Ahobizi! Lehen hitza euskaraz egin ezezagunekin, eta zure gertukoekin ere bai. Era berean, euskaraz egizu euskaraz ulertzen duten gainerako gurasoekin, nahiz eta oraindik batzuek euskaraz egiteko zailtasuna izan. Hala, haiei ere euskaraz ikasten lagunduko diezu, eta, era berean, haurrak ikusiko du euskara ez dela soilik etxeo eta eskolako kontua.



# PAREJAS mixtas

si una-o  
sabe euskera  
y la otra no



- ★ Es importante que el bebé tenga una buena base lingüística, para eso lo mejor es que cada uno le habléis en el idioma que domináis y así conseguiréis que sea bilingüe desde una edad temprana. Como criterio general, lo más adecuado es que quien sepa euskera se comunique con la niña o el niño en euskera, porque es la forma más natural, rica, efectiva y económica de transmitir una lengua. Asimismo, es beneficioso que quien no lo sepa muestre una actitud positiva y de interés hacia la adquisición del euskera.
- ★ Si optáis por la enseñanza en euskera, garantizaréis que adquiera un nivel de conocimiento similar en euskera y en castellano.
- ★ La familia es un medio de transmisión del euskera muy importante, pero no es el único. A medida que las hijas e hijos crecen, surgirán otros tipos de referentes lingüísticos: cuidadoras y cuidadores, educadoras y educadores, monitoras y monitores de tiempo libre...





- ★ Es importante que el euskera esté presente en todos ellos, para garantizar que la adquisición del idioma se da en ámbitos variados.
- ★ Es importante que vuestras hijas e hijos no relacionen el euskera solamente con el colegio o el entorno académico. Por ello, hay que animar y reforzar el proceso de adquisición y el hábito de uso del euskera, proporcionándoles productos de ocio (cuentos, juegos, música, televisión, etc.) en euskera, y también actividades extraescolares, de ocio... en euskera. Cuantas más oportunidades tengan para hablar euskera fuera del colegio, en el futuro tendrán más facilidad para hablarlo y les resultará más cómodo.
- ★ Si tenéis personas vascoparlantes en vuestro entorno más cercano, pedidles que hablen a vuestras hijas e hijos en euskera. Así les estaréis ofreciendo más referentes lingüísticos.
- ★ Tener una hija o un hijo puede ser una buena motivación para aprender euskera y además nos ayudará a utilizarlo de forma natural. Si la persona que no sabe, lo aprende, poco a poco irá entendiendo las comunicaciones intrafamiliares y podrá pedir a su pareja e hijas e hijos que le hablen en euskera. Por otra parte, con el tiempo también podrá participar en las actividades de ocio que sean en euskera y en las reuniones en euskera.

# SI DESCONOCÉIS o desconoces

## el euskera

- ★ Es conveniente transmitir al bebé el idioma que mejor se domine, proporcionarle un modelo rico y adecuado, para que tenga una buena base lingüística. Cuanto mejor domine el idioma materno, más fácil le será la adquisición de otros idiomas en el futuro.
- ★ Por otra parte, la actitud también es muy importante. Hay que cuidar el idioma materno, y también hay que mostrar interés por la adquisición de otras lenguas.
- ★ Con el tiempo, además de la familia necesitará otro tipo de referentes: cuidadores y cuidadoras, escuela infantil, ocio.... Es importante que el euskera esté presente en todos ellos, pues cuanto menos euskera tenga en casa, más necesitará tenerlo fuera de ella, para poder aprenderlo y poder comunicarse cómodamente en euskera.
- ★ Si se opta por la enseñanza en euskera, se garantizará que adquiera un nivel de conocimiento similar en euskera y en castellano. Es



importante que vuestras hijas e hijos no relacionen el euskera solamente con el colegio o el entorno académico. Por ello, hay que animar y reforzar el proceso de adquisición y el hábito de uso del euskera, proporcionándoles productos de ocio (cuentos, juegos, música, televisión, etc.) en euskera, y también actividades extraescolares, de ocio... en euskera. Cuantas más oportunidades tengan para hablar euskera fuera del colegio, en el futuro tendrán más facilidad para hablarlo y les resultará más cómodo.

- ★ Si tenéis personas vascoparlantes en vuestro entorno más cercano, pedidles que hablen a vuestras hijas e hijos en euskera. Así les estaréis ofreciendo más referentes lingüísticos.
- ★ Conviene que el euskera sea para el bebé una lengua cercana y conocida desde un principio. No podréis transmitirle el euskera, pero sí el interés y aprecio por él. Para ello es conveniente facilitarle productos de ocio en euskera (cuentos, música, juegos, vídeos, televisión, etc.).
- ★ Tener un hijo o una hija es una buena motivación para animarnos a aprender euskera y además nos ayudará a utilizarlo de forma natural.



# euskaraz ULERTZEN BADUZUE

baina hitz  
egiteko  
zailtasunak  
badituzue

- ★ Zuen ama-hizkuntza euskara ez bada, zaindu etxekoa eta saiatu ahalik eta eredu osoena eskaintzen. Gogoan izan, zenbat eta oinarri linguistiko hobea izan haurrak, orduan eta errazago eskuratuko dituela hizkuntzak etorkizunean. Garrantzitsua da jarrera positiboa eta hizkuntzarekiko harreman ona transmititzea.
- ★ Egokia da euskaraz ahal bezain beste egitea, baina ez dezala komunikazioa eragotzi. Saiatu ondo dakizkizuen esaldiak eta formulak euskaraz esaten, euskara haurarentzat etxeko hizkuntza ere izan dadin.
- ★ Zure bikotekideak euskaraz badaki, eskatu zuei ere euskaraz egiteko. Hala, haurrak etxeko hizkuntza euskara dela ikasiko du. Zure bikotekideak euskaraz ez badaki, komenigarria da euskararekiko jarrera positiboa izatea eta haurra euskaraz egitera animatzea.





- ★ Hasiara batean familia da umearen munduko erdigunea, baina denborak aurrera egin ahala, beste eragile batzuk agertuko dira (zaintzaileak, haur eskolak, lagunak, aisialdia...). Horregatik, beste arlo horietan guztietan ere euskarak bere lekua izateko ahalegina egin behar da.
- ★ Komenigarria da haurrak euskara eskolarekin eta ingurune akademikoarekin soilik ez lotzea. Horregatik, euskara ikasteko prozesua eta erabiltzeko ohitura bultzatu eta indartu behar dira, aisialdiko produktuak (ipuinak, jolasak, musika, telebista, etab.) euskaraz eskainiz, eta baita eskolaz kanpoko jarduerak eta aisialdiko jarduerak euskaraz eskainiz ere bai.
- ★ Zuen inguruan euskal hiztunak badituzue, eskatu haurrari euskaraz egiteko, erreferente linguistiko gehiago izan ditzan.
- ★ Haurraren jaiotza motibazio ezin hobea izan daiteke euskara ikasten jarraitzeko, eta hala, haurrari euskara eskuratzen laguntzeko. Animatu eta eman izena euskaltegian!
- ★ Egin Euskaraldiaren ariketa urte osoan eta izan Belarriprest! Eskatu zuen ingurukoei eta beste guraso euskaldunei zuei ere euskaraz egiteko, hala ikasten lagunduko baitizue.




# SI ENTENDÉIS euskera

pero tenéis  
dificultades  
para  
hablarlo

- ★ Si vuestra lengua materna no es el euskera, cuida tu lengua y procura ofrecer un modelo lo más completo posible. Así, más fácil les será en el futuro la adquisición de las otras lenguas. Es importante ofrecer el euskera a las niñas y niños también en casa, ya que así les transmitiréis una actitud positiva y una buena relación con el idioma.
- ★ Es adecuado utilizar el euskera todo lo que podáis, pero que eso no impida la comunicación. Intentad decir en euskera frases y fórmulas que sepáis bien, para que el euskera sea otra lengua de casa para la niña o el niño.
- ★ Si vuestra pareja sabe euskera, pide que te hable en euskera. Si tu pareja no entiende el euskera, es conveniente que tenga una actitud favorable hacia el idioma y anime a vuestras hijas e hijos a hablarlo.





- ★ En principio la familia es el centro mundial del bebé, pero con el paso del tiempo irán apareciendo otros agentes (cuidadores, escuelas infantiles, amigos, tiempo libre). Procurad que el euskera tenga su espacio en todos estos ámbitos.
- ★ Es importante que vuestras hijas e hijos no relacionen el euskera solamente con el colegio o el entorno académico. Por ello, hay que animar y reforzar el proceso de adquisición y el hábito de uso del euskera, proporcionándoles productos de ocio y actividades extraescolares, de ocio... en euskera.
- ★ Si tenéis personas vascoparlantes en vuestro entorno más cercano, pedidles que hablen a vuestras hijas e hijos en euskera, para ofrecedles más referentes lingüísticos.
- ★ El nacimiento de un bebé es una motivación maravillosa para seguir aprendiendo euskera, y así, poder ayudar al bebé en su adquisición. ¡Anímate y apúntate en el euskaltegi!
- ★ ¡Haced el ejercicio de Euskaraldia todo el año y sed Belarriprest!





Buruntzaldea  
euskaraz

<https://euskara.buruntzaldea.eus>